



Loturiko arriskuak	Norberaren babeserako behar diren ekipoak
Leherketa Sutea Erredurak Kolpeak botila iraultzeagatik edo erortzeagatik Botila barneko gasen eraginpean egotea	Botila barneko gasarekin egin beharreko lanak eskaturikoak Segurtasun oinetakoak botilak lekuz aldatzeko Eskularruak

Gas konprimitua, likidotua edo presioan disolbatutakoa duten botilak biltegitratzea, garraiatzea eta erabiltzea

PRAKTIKA SEGURUAK

Botilak garraiatzea eta lekuz aldatzea

Igotzeko:

- Ez ezazu sistema magnetikorik erabili.
- Ez ezazu erabili eslingarik, sokarik edo katerik, botila horretarako prestaturik ez badago.
- Garabi bat erabil dezakezu botilak lotzen dituen saskia edo plataforma erabiltzen baduzu.

Lekuz aldatzeko:

- Botilak etzanda daudela, saia zaitetz herrestan edo biraka ez ekartzen.
- Seguruagoa da esku-orga egokiekin mugitzea, distantzia laburrak badira ere. Esku-orgarik ez baduzu, biraka ekar itzazu botilak, zutikako posizioan, bere oinarriaren edo idulkiaren gainean.

Ez itzazu botilak erabili esku edo eskularru koipeztatuekin.

Ez itzazu sekula botilak txanotik hartu, txanoa finkoa ez bada.


Ez itzazu garraiatu suaren eraginpean egoniko botilak edo ihesak dituztenak, hornitzailearen baimenik gabe.



Biltegitratzea

Lokalak

- Egokiak izanen dira eta oso garbi edukiko dira.
- Gelak lehorrak eta ongi aireztatuak izanen dira eta ez dira 50° C-tik gora egonen.
- Debekaturik dago botilak biltegitratzea aireztapenik gabeko lurpeko lokaletan.
- Biltegitratze guneetan adierazi beharko da biltegitratutako gasa zein den eta arriskugarritasun ikurrak (sukoiak, toxikoak, etab.) jarrita egonen dira.
- Biltegitako instalazio elektrikoa antideflagratzailea izanen da, gasak sukoiak badira. Ez da botila bakar bat ere konektatuko zirkuitu elektriko batera.
- Argi adierazi beharko da debekaturik dagoela erretzea eta edozeinugarrekin sartzea.
- Gorde itzazu botila beteak eta hutsak multzo desberdinetan, beti zutikako posizioan eta zoru lauetan.
- Jar itzazu gas bateraezinak dituzten botilak oztopo fisiko batez bereizitako guneetan.
- Ez itzazu botilak biltegitratu produktu hauetatik hurbil: produktu korrosiboak, su erraz hartzen duten substantziak (olioa, gasolina, hondakinak, etab.), igogailuak, igaroguneak edo mugitzen ari diren objektu astunak dauden tokiak (objektu horiek elkarren artean talka egin dezakete edo haien gainera eror daitezke).



Eskura izanen dira soilik erabiltzeko eta erreserban edukitzeko nahitaezkoak diren botilak, hau da, beharrezko zerbitzua etengabe emateko behar direnak eta ez da sekula botila metaketarik eginen.



Zerbitzuan jarri eta erabiltzea


- Botilak erabiliko dituzte horretan esperientzia dutenek eta alde zuzeneko informazioa dutenek, soilik helburu egokietarako eta erabilera arauak errespetatuz.
- Edozein zalantza izanez gero, kontsulta ezazu fabrikatzailearekin edo hornitzailearekin.

Erabili aurretik:

- Ez itzazu aldatu edo ezabatu hornitzaileak edukia identifikatzeko jarritako markak edo etiketak. Botila bat identifikatu gabe badago, itzul ezazu erabili gabe.
- Ziurta ezazu zutikako posizioan dagoela eta behar bezala lotua, eror ez dadin.
- Egiazta ezazu erregulatzaileraren loturetako akoplamentuek botilaren balbularekin bat egiten dutela. Ez ezazu tarteko piezarik erabili eta ez itzazu sekula behartu ongi doitu gabeko loturak.
- Balbula babesten duten txano mugikorrek botilaren gainean egonen dira botila erabiltzen hasi arte. Ez itzazu sekula ontzi moduan erabili.
- Erabat debekaturik dago balbulak desmuntatzea.
- Hoditerietara, erregulatzaileretara eta beste tresna batzuetara egindako loturak beti ongi kontserbatuta egonen dira.
- Gas batekin edo gas multzo batekin erabilitako erregulatzailerak, neurgailuak, mangerak eta bestelako tresnak ez dira bestelako gasak dituzten botiletan erabiliko.

• Ihesak daudela uste denean:

- Ez ezazu sekula sugarrak erabili; erabil itzazu ihesak antzemateko baliabiderik egokienak.
- Balbulan ihesen bat balego, itxi ezazu eta emaitza horren berri hornitzaileari.
- Ihesa ez bada kontrolatzen, eraman ezazu botila kanpoaldera eta jar ezazu seinale egoki bat ezin dela erabili adierazteko.
- Substantzia sukoia, toxikoa edo korrosiboa bada, ohartarazi arrisku horiek.





Erabili bitartean:

- Lana uzten denean eta/edo botila aldatzen denean, egiazta ezazu presio-erregulagailuaren torlojua erabat lasaituta dagoela, erregulatzaila konektatu ondoren eta botilaren balbula ireki baino lehenago.
- Ireki ezazu astiro botilaren balbula. Jar ezazu botilaren irteera bere posizioaren kontrako norabidean eta sekula ez beste pertsona batzuei begira.
- Ez ezazu erabili hornitzaileak emandakoak edo onartutakoak ez bezalako tresnarik.
- Ez ezazu tresnarik erabili esku-bolantea duten balbulen gainean.
- Zaila bada balbulak irekitzea edo ixtea edo kateatuta badaude, eskatu jarraibideak hornitzaileari, baina ez sekula ere lubrifikatzaileak erabili.
- Balbula beti itxita egonen da. Hala ere, gasa erabiltzean, erabat irekita egonen da.
- Saia zaituz ez dadin botilatik gas emari handia atera, balbulan izotza egin daitekeelako. Emari handia behar bada, erabil ezazu botila-bateria bat.
- Botilaren erregulagailua deskonektatu aurretik, itxi ezazu balbula eta ken ezazu erregulagailuaren presio osoa.

Soldadura oxiazetilenikoko lanetan:

- Debekaturik dago soldagailua botilan zintzilikatzea eta/edo botila soldagailuarekin berotzea.
- Soldadura elektrikoko ekipamendu bateko elektrodo-etxeak edo masa egiteko kakoak ez dute botilaren pareta ukitu behar, ezta arku hartan zebatu ere.
- Debekaturik dago piezak botilen gainean soldatzea.



- Beste gas edo likido batzuek atzera egin dutelako, botila kutsatzeko arriskurik badago, atzeraezeko balbula egoki bat beharko da.
- Gai ez diren langileek debekaturik dute gasak botila batetik bestera pasatzea. Botilan edo balbulan edozein substantzia arraro nahigabe sartzen bada, botilaren hornitzaileari esanzen zaio.
- Gasaren fabrikatzaileak edo banatzaileak soilik berpintatuko du botila.

Botilek balbula itxita eta txanoa behar bezala finkatuta izan beharko dute, hutsak egonik ere

Langileari emana

Izen-deiturak:

Sinadura:

Data: